

EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Le Parody



Le Parody Sole Parodyren musika-proiektua da. Espainiako kantari eta musikagile honek pop iluna, folklorea eta elektronikoa bateratzen ditu bere kantuetan. Silaba teknologikoak, egitura melodramatikoak.

Tresna gisa erabilitako ahotsa eta hitzak, kantu-collageen barruan. Poparen mugen barruko esperimentu bat. Kopia, birziklatzea, ikertzea. Musika zuzenekoetarako tresna gisa, dantza eta entzunaldiaren artean zubiak eratuz. Magia. Zehatzezina, sailkaezina, gauza asko gogora ekartzen duena baina ezaguna den ezeren antzik ez duena, esan denez. Etiketak hitzen mundurako, bakoitzak behar dituenak hauta ditzan; musika zentzumenerako, bakoitzak entzun dezala nahiago duen eran.

Le Parody proiektuak 2011. urtearen amaieran eman zuen bere burua ezagutzera, *Párala* (Vértigo) EPrekin, eta berehala erakarri zuen Estatuko eta Latinoamerikako hainbat herrialdeetako prentsa espezializatuaren arreta. Hurrengo urtean, **Le Parody** lehena disko luzea argitaratu zuen, *Cásala* (sound track). Hainbat hedabideren arabera, etorkizun oparoenetako debut bat izan zen (artista errebelazioa Radio Nacional eta Jenesaispop aldizkariaren ustez, besteak beste) eta musika independenteko zenbait sari eskuratu zituen -Proyecto Demo 2013ko irabazlea / Mondo Sonoro aldizkariak 2012ko maketarik onena hautatua (ed. Madrid) / Herri-musikaren kategorian gazteen sorkuntzako atalean INJUVE sarietako accesita (2012), besteak beste-. 2015eko urrian, *Hondo* argitaratu zuen, debuta baino trinkoagoa den lana, ia osorik eraikia Indiako, Irango, Marokoko, Balkanetako eta Espainiako hegoaldeko musiken sanpleak erabiliz. Kritikak ustekabez hartu, eta katalogatzeko zaila zela esan zuen, baina urteko diskorik onenen zerrendetako batzuetan sartu zen (Mondo Sonoro, Notodo, GQ...).

Orain, Hondo lana atera eta lau urte igarotakoan, hirugarren albuma aurkeztuko du **Azkuna Zentroa** - Alhondiga Bilbaon, *Porvenir*. Zuzeneko kontzertuetan inprobisatutako saioetako zatiak ditu, eta sekuentziatzaile eta sintetizagailu analogikoen erabileraren eragina sumatzen zaio. Hala, *El Junco* singlean argi nabarmentzen da klubeko elektronikara egin duen bilakaera.

////////////////////////////////////

Urriak 25, ostirala

21:00

Kulturen Ataria

Igerilekuaren argi-zuloaren azpian

12€ /10€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Az Info eta azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

 leparody.tumblr.com

 [@jerome.bel.79](https://www.facebook.com/gerome.bel)

 [#jérômebel](https://www.instagram.com/jeromebel)

